

1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2016):	12.422 biztanle
Zabalera:	5,41 km ²
Nafarroa2000ko zer eskualdetakoa:	Iruña (ikus mapa)
Udalerriak:	Iruña (barrutia-sekzioa: 07-009 eta 07-023), Berriobeiti (bakarrik Artika)

2. Komunitatea eta osasuna

Buztintxuriko eskualde oinarrizkoa 30 urtetik 45era bitarteko aita-amek eta 10 urtetik beheitiko seme-alabek osatua dago. Buztintxuriko eskualde oinarrizkoak Nafarroako handienetakoak ditu jaiotza tasa (%21,5), 14-19 urteko ama duten jaioberrien tasa (%12,3) eta muturreko pobrezia-arrisku tasa (11,5%). Aldiz, eskualde honek txikienetakoak ditu zahartzaroko mendekotasun indizea (%8,2) eta bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko gizonezkoen etheen portzentajea (%15,9).

Buztintxurikoa da emaitza hoberenak agertzen dituen eskualde oinarrizkoa haurren obesitatearen prebalentziari dagokionez (%2,0). Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituen eskualde oinarrizkoa da gizonezko jaioberrien bizi itxaropenari dagokionez (78,0 urte), eta emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean dago emakumezko jaioberrien bizi itxaropenari

dagokionez (85,2 urte) eta emakumezkoen eta gizonezkoen antsiolitiko eta antidepresiboen kontsumoari dagokionez (%19,4 eta %11,1, hurrenez hurren).

Nafarroa2000 zonifikazioan Buztintxuriko eskualde oinarrizkoa Iruñeko eskualdean dagoenez, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Iruñeari dagozkion adierazleak, bizimoduei, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik atereak. Horien arabera, eskualdeko gazteen %39,1ek diote alkohol kontsumo intentsiboak egiten dituztela (*binge drinking*) eta %20,8k kontsumitzen dute tabakoa egunero.


3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hau da, osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateek eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesis).

[→ Ikus eskualdeko aktiboaren mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierazle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrikoen multzoaren aldera. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1-2: Bizt. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizt. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Iruñeko eskualdeko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 3., 4. eta 13. adierazleetan, 7; 10-12. adierazleetan, 6.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduen, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleetarako egindako kontrastea).

1. Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobrezia arriskuaren atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobrezia arriskuaren atalasea, 2015ean: 5.150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduerara fisiko urria edo batere egiten ez duten 14 - 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 egunetan kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 y 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (T. gordina: emakumezkoak 10,5 eta gizonezkoak 6,0); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score >= +2); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 3,5); **18.** 2 motako diabetes izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotza-tasaren arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.